


////////////////////

IGARTUBEITI

BASERRI MUSEOA



IGARTUBEITIN SAKONDUZ

ALBERTO SANTANA: "IGARTUBEITI, SAGARDOTARAKO ETA ARTORAKO BASERRIA"

Alberto Santana historialariak, 1993tik 2001era bitartean, Igartubeiti Baserriko ikerketan eta zaharberritzean parte hartu zuen aditu taldeko kideak, eskainitako bisita gidatuaren transkripzioa.

Igartubeitiren kokapena

Baserriaren gailur-ilara eta inguruko geologiarena berberak dira. Hain dago estrategikoki kokatua, eguzkiaren indarra bikain jasotzeaz gain, leku euritsu eta topografikoki zail batera ere egokitu dela Igartubeiti.

Igartubeiti da indusketa arkeologiko bat burutu zaion lehen baserria. Igartubeitiri buruturiko ikerketa sakonaren erabilera zerbait berria izan da. Baserrietako arkeologia ezezaguna zen egundaino.

Zaharberritze prozesua


Lehendabizi Igartubeiti suntsitu genuen. Enbor bakarra ere ez zen zutik geratu, banan bana desmuntatu eta antolatu genituen baserriko egurrezko 550 habeak, piezak eta oholak; datu base konplexua eratu genuen. Tratamendu espezializatuak, txertaketak eta mota askotako analisiak burutu genituen, buru-hausgarria berreraikitzeke eta orain aurkitzen den bezala geratzera igarotzeraino.



Igartubeiti, errusiar panpina

Ikerketa honen ondorioz, Igartubeiti, panpina errusiar baten modukoa dela ulertu dugu, bat zabaldu eta beste batekin topo egiten da, hau ireki eta ondorengo aurkitzen da, hurrengo eta hurrengo...


Indusketa arkeologikoan etxola baten aztarnak topatu genituen, 12 bat zentimetroko diametroko ia 20 zulo. Adaxka txikiak jartzeko zuloak dira, makila txikiak txabola txiki baten ertzak eratzeko. Zoritxarrez etxola hau hasieran sukalde izan zenaren azpian kokatua, denboran aurrera familiaren ukuilu izan zen, eta lurra behi eta idien txizaz eta gorotzaz josia izan zen urtetan zehar. Honela ezinezko izan zitzaigun txabola datatzeko aztarnarik aurkitzea. 1000 bat urte dituela uste dugu. Fidagarritasun osoz esan dezakegu duela 1000 urte Igartubeitin jendea bizi zela. Etxola oso txikia zen, luzeraz 4 bat metro eta 3 zabal.



Igartubeitiko atetik sartzerakoan, 1540 urte inguruan izango ginateke. Garai hartako baserriarren lehentasuna, artoa oraindik ezagutu ez eta, sagardo ona egitea zen. Garai hartan eraiki zen oinarrizkoena, baina ez kanpo itxura. Kanpoko itxura zatirik berriena da, 1620. urte ingurukoa.

Sagardotarako eta artorako baserria

Garai hartako baserria erronka bati aurre egiteko burutu baitzen, lur txarrean bizirautea; zerealak lantzea, zerealik landu ezin den lurlean. XVII. mendean norbaitek buruxka lodi berezi hori Amerikatik ekarri zuen arte, ale hori iletsuz josia, hostoduna. Artoak hiru mendeetan zehar euskal baserriarren bizimodua baretu zuen. Hori dela eta bataiatu dugu artoaren eta sagardo baserri gisa. Nortasun hauetariko bat ere ez zen ezagutzen eraberritze lanak hasi artean. Igartubeiti izan da, milaka euskal baserrik egiten zituzten hainbat galderei erantzuna ematen lehena.



Egurrezko baserria

Lehen belaunaldiko euskal baserrien artean Igartubeiti egurrezko baserrien taldekoa da, habeen artean dauden oholak ere egurrezkoak direlako. Zubi horizontal bidezko ohol sistema hauek zati bertikalak dituzte, bai hezurduan bai inguruan ere: oholtzan, tartean eta Igartubeitiko barne banaketan, baita garaiko beste baserri askotan ere, guztiak haritz egurrezko oholez eginik baitaude.

Batzuk 40, 50, 60 urte ingurukoak.

Besteak, 120 eta 220 urte bitartekoak (enborren eraztunak kontatu ditugulako dakigu hau) moztu ziren unean. Hain dira handiak egurrak, non gaur egun Euskal Herrian ez dagoen honelako enbordon zuhaitzik. Baserri honetan 40 bakarrik daude. Igartubeiti eraiki zen garaian beste 9000 baserri gehiago ere eraiki ziren, eta hauetariko bakoitzak honelako 40 haritz erraldoi ditu, tamalez, hau bezalako bat ere ez zaigu geratu. Mundu bat desagertu da. Igartubeitik kontatzen diguna gurea ez den mundu batekoa da.

Baserri honetan egur eta harrizko irtenbide misto bat dugu. Egurrezko irtenbide sendoak (egurra doakoa zen, auzokoa baitzen), merkeak ziren. Hori zen, baserriar xume eta txiroen artean gehien erabilitako irtenbidea. Eta hala ere, ez dugu Igartubeitiren antzekorik aurkituko. Hori suteen ondorio da, egurrezko baserriak oso ahulak baitira. Milaka aldiz erre dira sutan. Garaiko argizatze sistemak, kriseiluak dira. Ohikoa zen metxa bale oliotan dantzari egotea, horrela lortzen zuten hemen kalitatezko argizatzea. Metxa jezten ari zen bitartean nahiko zen tanta pare bat lastotara erortzea sua pizteko.



Baserriarrek ez zituzten beraien baserriak eraikitzen. Euskal baserria Europako 10 eredu indartsuenetarikoen artean dago, ongi eraikitakoen, zabalaren eta bizitzeko egokien artean. Horren arrazoia da baserriarrek arkitektoari ordaintzen ziotela baserria eraiki zezan. Arkitektoa arotz maisua

zen, estrukturetan maisua. Argi izan baserriek oraindik interpretazio zaila dutela arrazoi hauengatik: batetik, urte asko igaro direlako, eta, bestetik, baserriak lanerako zirelako eta funtzio banaketa jakin bat zutelako euskal gizartean.

Igartubeiti bezalako etxeek egurraren teknologiarri buruzko ezagutza sakona erakutsi digute. Abangoardia ezagutza bat. Hain da sakona ezagutza non kanpotik ekarria dela uste dugun, kanpotik geureganaturiko teknologia da. Igartubeiti eta bera bezalako lehen belaunaldiko baserri guztiak Hego Alemaniako arotzen teknologiarri esker eraiki zirela uste dugu. XV. mende amaieran egur eraikuntzaren "ferrari-a" izatera iritsi zen ezagutzari esker.



Dolare baserria

Bederatzi edo hamar mila baserri inguru sagardoa egiteko makinaren inguruan eraiki ziren. Gaur egun soilik Igartubeiti baserrian ikus dezakeguna, Gipuzkoako baserri guztiek zuten, hots, dolarea. Gipuzkoan ez zegoen XVI. mendeko makina erraldoi hori ez zuen baserriarik. Sagardoa egiteko dolareak mugatzen du baserriaren tamaina, altuera eta hedadura. Bi solairuen artean lan egiten du makinak. Zulodun brida-sistema konplexu batzuen bidez jartzen da martxan, eta horiei esker igo, jaitsi, mugitu eta presioaren intentsitatea erregula daiteke sostengu puntuan.

Tramankulu hau 3.500kg sagar zanpatzeko gai da, eta horrela 2.800 litro sagardo eskura daitezke. Familiak 4,5 litro sagardo edaten zuen egunero. Sagardoa zen funtsezko edaria. Edari honi esker biziraun zuten euskaldunek, gaixotasunetatik babestuz, osasuntsu mantenduz. Ura kutsatuta zegoen, hemengo ura lurreko ur-putzuetatik lortzen zuten, baratzen parean, edo errepede alboan zeuden putzuetatik, urak askotan beherakoa sor zezakeen eta sagardoa edateak, osasuntsu eta pozik mantentzen zuen jendea. Beraz, sagardoak bizia salbatu zien.

Igartubeiti baserriak argi erakusten digu gipuzkoarrek baserri barruan bizitzea erabaki zutela biziraupena bermatzeko modurik egokiena zela uste zutelako. Munduan beste inon ez da horrelakorik egin. Baserria arotz alemanen bidez sortu zen, erromatarren mekanika eta teknika erabiliz, errealitatean baserria Frankenstein munstro bat da. Kultura ezberdinen atalez eratua, instrumentu bakarraren inguruan eraikia.

1500-1540. urte bitartean eraikitako Erdi- aroko sagardo prentsa guzti hauek eraikitzeari utzi zioten 1650. urte inguruan, zaharkituriko teknologia gisa ikusi baitziren. Aurkitu genuen baserri bat, azkenekoz honelako makina bat lanean ikusteko aukera izan zuena 1908. urtean, Iribar baserrian. 7-8 urte zituenean aita eta osaba azkenekoz halako makinan sagardoa egiten ikusi izanaz oroitu zen. Palanka biraka hastean, harrizarra altxatzean, zorua zeharkatzen duen egurrezko ardatza mugitu eta goiko pisuraino igotzen zen; eta etxe osoak dardara egiten zuela zioen. Habeak estutzean, etxe osoak negar egiten zuela.

“Nik beldur izugarria sentitzen nuen, eta baratzena joaten nintzen korrika: Ez ezak beldurrik izan, ez duk ezer gertatzen, sagardoa egiten hari gaituk eta! esaten zidaten.”

Baserriak negar egiten zuela zioen eta berak lastima izugarria sentitzen zuela. Azken lekukoa izan zen, Igartubeiti zaharberritzen amaitu aurretik hil zen. Baina ulertzeko falta zitzaigun azken gakoa utzi zigun, Gipuzkoako baserri guztiak azaltzea ahalbidetu zigun gakoa.

Hau bezalako makinak leku askotan aurki daitezke, Alemanian, Frantzian, Erdi Aroko gazteluetan, etab. Hemen duguna baino 100 urte zaharragoak ere badaude. Zonaldeko baserri guztiak bertatik bizitzea ahalbidetzen duen makina hau, ordea, hemen bakarrik aurki dezakegu. Hemendik kanpo, arruntena honelako makinak gazteluko jauntxoek bakarrik edukitzea litzateke.

